

Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta hari lotutako edo haren mendeko erakunde, sozietate eta fundazio publikoen banku-kontuei buruzko informazioaren argitalpena arautzen duena.

Kontu Irekiei buruzko azaroaren 11ko 16/2016 Foru Legeak ezartzen duenez, aldiari behin Nafarroako Atarian informazio eguneratua argitaratu behar da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek eta sozietate eta fundazio publikoek finantza-erakundeetan dituzten kontu korronteen saldoei buruz.

Foru lege horrek argitaratu beharreko informazioa ezartzen du, baina agindu horren alderdi batzuek interpretazio arazoak sor ditzakete, eta horregatik bidezkoa da gai batzuk zehaztea zalantzak argitzeko. Beraz, legearen eremu subjektiboari dagokionez, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean jasotako definizio zabala oinarri hartuta, foru dekretu honek entitate horiek zerrendatzeko mekanismo bat ezartzen du. Zerrenda osoa foru agindu baten bidez onetsiko da, eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da.

Argitaratu beharreko informazioari dagokionez, Gardentasunari buruzko Foru Legeak finantza-erakundeetan irekitako banku-kontuak aipatzen ditu. "Kontu-korrante" kontzeptuan sartzen diren finantza-aktibo eta finantza-pasiboen multzoa askoz zabalagoa da Foru Komunitateko Diruzaintzak funts likidoak kudeatzeko erabiltzen dituen tresnen multzoa baino. Izan ere, azken multzo hori Kontu Irekiei buruzko Foru Legearen xedea da. Horrenbestez, argitaratu beharreko banku-kontratuen motak zehaztu behar dira, foru legea aplikagarri duten entitateen funts likidoen egoera desitxuratu dezaketen elementu guztiak kenduz. Horregatik, instrumentalak diren eta foru legea aplikagarri duten entitate publikoen kontrola edo kudeaketa ez duten kontu guztiak kentzen dira, entitate publiko horiek kontuen titulartasuna eduki arren.

Foru Legeak kontuen ezaugarri batzuk ere aipatzen ditu, haien saldo eta mugimenduak behar bezala interpretatzeko beharrezkoak, eta horregatik argi eta garbi definitu behar dira kontu bakoitzaren edo kontu kategoria bakoitzaren izaera, helburua edo berriazko arauak, kontu baten ezaugarriek testuinguru egokia eman dezaten aldiari behin mugimendu eta saldoei buruz argitaratzen den informazioa ulertzeko.

Bestetik, diruzaintzaren kudeaketa Ekonomia eta Ogasuneko Departamentuan zentralizatuta badago ere, askotan Foru Komunitateko Administrazio unitate organiko oso ezberdinek erabiltzen dute banku-kontu bat. Testuinguru horretan, kontu guztien saldoak euskarri bakar batean argitaratzeak behartzen du kontuen informazioa zentralizatzeko mekanismo bat ezartzera, foru legean aurreikusia. Legeak diruzaintzako eginkizunak dituen organoari esleitzen dio kontuen datuak emateko ardura. Barreiatutako iturburuen datuak epe laburrean eta formatu bateratuan lortzeak arriskuan jar dezake prozesuaren eraginkortasuna. Eraginkortasun hori bermatzeko, finantza-erakundeek komunikatu behar dute argitaratu beharreko informazioa, Espainiako Bankuen Elkarteak fitxategiak bidaltzeko onetsitako datuen egitura normalizatuaren bidez. Mekanismo hori erabiltzeko, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak finantza-erakundeei banku-kontuen berri emanen die, hain zuzen ere, gero erakunde horiek hilabetero mugimendu eta saldoen informazio normalizatu eman behar duten kontuena.

Foru legearen betearazpena bermatzeko eta argitaratutako kontuen balizko gabeziak atzemateko, komenigarria da mekanismo bat ezartzea egiaztatzeko informazioa argitaratuta duten banku-kontuak entitate titularren balantzearen partidetako saldoen euskarria direla. Horretarako, argitaratutako kontuen zerrenda entitatearen urteko

kontuen memorian sartu behar da, eta urteko kontuen nahitaezko auditoretzek aztertu beharko dute kontu horien eta balantzeko partiden arteko korrelazioa.

Agerian dago araua garatu behar dela, batetik, kontzeptu batzuk argitzeko eta legearen irismena mugatzeko, baliorik ez duten eta azken emaitza desitxuratu dezaketen tresnak kenduz, eta, bestetik, banku-kontuen informazioa emateko mekanismoa eratzeko, finantza-erakundeen eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren arteko zuzeneko fluxua ezarriz. Kontu Irekiei buruzko azaroaren 11ko 16/2016 Foru Legearen azken xedapenetako hirugarrenak Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen dio, behar diren arauzko xedapenak eman ditzan, bere eskumenen eremuan, foru legean ezarritakoa garatzeko eta aplikatzeko.

Horiek horrela, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluarekin bat, eta Nafarroako Gobernuak 2017ko xxxxxxxxxaren xxko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz, DEKRETATZEN DUT:

#### 1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu behar diren banku-kontuei buruzko informazioaren fluxua arautzea, Kontu Irekiei buruzko azaroaren 11ko 16/2016 Foru Legean ezarritakoarekin bat.

#### 2. artikulua. Esparru subjektiboa

1. Titularra Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, hari lotutako edo haren mendeko erakunde publiko bat, sozietate publiko bat, fundazio publiko bat edo zuzenbide publikoko entitate bat duten banku-kontuei aplikatuko zaizkie foru dekretu honetako xedapenak, betiere Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 2. artikuluaaren esparru subjektiboaren barnean sarturik badago.

2. Banku-kontuetan foru dekretu honetan jasotakoa aplikatu behar duten entitateen zerrenda zehatza Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren foru agindu baten bidez onetsiko da, eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da.

#### 3. artikulua. Esparru objektiboa

Legearen esparru subjektiboko entitateek finantza-erakundeetan irekitzen dituzten banku-kontuei aplikatuko zaie foru dekretu hau, betiere bere ardurapeko funts likidoen ageriko gordailurako eta kobrantzen eta ordainketen kudeaketarako erabiltzen badira. Kontu instrumentalak edo barnekoak bazterturik daude, betiere entitate titularrek kontu horiek kudeatzeko ardura ez badute.

#### 4. artikulua. Kontu motak

Foru dekretu honen eremu objektiboko banku-kontuak kategoria hauetako batean sartuko dira:

- a) Kontu operatiboak: entitate titularren kobrantzen eta ordainketen eragiketak gauzatzeko erabiltzen diren banku-kontuak.
- b) Inbertsio kontuak: finantza-etekina lortzeko erabiltzen diren kontuak. Mugimenduak kontuak kudeatzen dituen entitate beraren kontuetatik etorri eta entitate beraren kontuetara joaten dira.
- c) Justifikatu beharreko eragiketen kontuak: geroago kudeatzaile baimenduak justifikatu behar dituen eragiketetako ordainketak egiteko funtsak mantentzen dituzte. Iraunkorrak (kutxa finkoko aurrerakinak) direnean, egindako ordainketen zenbatekoa berriz jarriko da gastuaren justifikazioaren ondorioz;

berariazkoak (justifikatu beharreko ordainketa-aginduak) direnean, hau da, aldi jakin baterako helburu zehatz bat betetzeko, egindako gastuak justifikatu behar dira, eta gainerako saldoa berriz jarriko da ezarritako epean.

- d) Diru-sarreraren kontu bereziak: unitate zehatz batzuek kudeatutako kobrantza berariazkoak jasotzen dituzte. Ezin diete ordainketei zuzenean erantzun, eta saldoak kontu operatiboetan sartu behar dira ezarritako egun eta epeetan.
- e) Kudeaketa integratutako kontuak: kontua kudeatzeko baimena duten unitate eta zentroek beren eskumeneko jardura zehatzen kudeaketaren ondoriozko kobrantzak eta ordainketak kudeatzeko erabiltzen dituzte. Unitate kudeatzaileek kontabilitateko egoera-orriak egin behar dituzte, kontu horietako mugimenduak atxikitako kudeaketa eremuaren berariazko eragiketekin lotu ahal izateko.
- f) Gordailu-kontuak: Kontu Irekiei buruzko Legearen eremu subjektiboko entitate bat da titularra, eta entitatearen ondarean sartzen ez diren funtsak kudeatzeko erabiltzen dira, betiere entitateak funtsaren kudeaketaren ardura badu.

#### 5. artikulua. Argitaratu beharreko informazioa

Kontu Irekiei buruzko azaroaren 11ko 16/2016 Foru Legeari dagokionez, Gobernu Irekiaren Atarian informazio hau agertuko da:

- a) Banku-kontuak argitaratu behar dituzten entitateen zerrenda. Entitate bakoitzaren IFZ eta izena agertuko dira.
- b) Banku-kontuen zerrenda. Kontu bakoitzaren informazioa Kontu Irekiei buruzko azaroaren 11ko 16/2016 Foru Legearen 2. artikulua aipatutakoa izanen da. Epigrafe bakoitzak eduki hau izanen du:
  - Kontu mota, foru dekretu honen 4. artikuluan zerrendatutako kategorien arabera.
  - Izena: kontuaren erabilera eta helburua definitzen ditu.
  - Titulartasuna: kontuaren saldoak eta mugimenduak urteko kontuetan jasotzen dituen entitatea.
  - Kokapena eta identifikazioa: entitate titularrean kontuaren mugimenduen ardura zuzena duen unitatea edo azpisaila, IFZ adierazita (entitate titularrarena ez bada).
  - Kontua irekita duen banku-erakundea.
  - Kontuaren identifikazioa: kontuaren IBAN kodearen lehenbiziko lau zenbakiak eta azkeneko lauak agertuko dira soilik.
  - Kontuaren saldoa. Azken datu eskuragarria adieraziko da, datuaren eguna barne. Gobernu Irekiaren Atarian informazioa agertuko da kontu baten hilabeteko saldoen serie historikoari buruz.
- c) Banku-kontuaren mugimenduak; mugimendu bakoitzaren informazio hau jasoko da:
  - Oharraren data.

- Oharraren balio-data.
- Zenbatekoa.
- Zeinua (positiboa edo negatiboa).
- Eragiketa motari dagokion kontzeptu komuna, Espainiako Bankuen Elkarteak, 43. arau edo koadernoan, onetsitako kontu korrontearen egitura normalizatuak erabiltzen duen kode sistemaren arabera kodifikatua.

#### 6. artikulua. Informazioa igortzea

1. Hilabete bakoitzaren lehenbiziko 5 egunean, finantza-erakundeek kontu bakoitzaren aurreko hilabeteko informazioa bidaliko diote Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari, Espainiako Bankuen Elkarteak, 43. arau edo koadernoan, onetsitako kontu korrontearen egitura normalizatuaren arabera.

2. Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak finantza-erakundeen esku utziko du Gobernu Irekiaren Atarian informazioa argitaratzeko beharra duten kontuen zerrenda.

3. Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak kontuen aurreko aldietako informazioa eskatzen ahalko die finantza-erakundeei.

#### 7. artikulua. Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren eginkizunak

Argitaratu beharreko banku-kontuen informazioari dagokionez, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak zeregin hauen ardura izanen du:

- Entitateen zerrenda prestatzea eta onestea.
- Banku-kontuen zerrenda eguneratua mantentzea.
- Finantza-erakundeek Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzeko bidaltzen duten informazioa jasotzea eta prozesatzea.
- Kontua identifikatzeko informazioa eskatzea argitaratu beharreko kontuen titularrak diren entitateei.

#### 8. artikulua. Kontuen titularren betebeharrak

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 2. artikuluaaren esparru subjektiboaren barnean sarturik dauden erakunde publiko, sozietate, fundazio eta zuzenbide publikoko entitateek Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari jakinaraziko diote foru dekretu honen 3. artikuluan adierazitakoa betetzen duten banku-kontuen irekiera eta itxiera. Kontua irekitzen edo ixten den hilabete berean egin beharko da jakinarazpena, foru dekretu honen 5. artikuluko b) atalean zerrendatutako ezaugarriak adierazita, saldoa izan ezik.

#### Xedapen gehigarria.–Entitateen urteko kontuak

Balantzean saldoak jasota dituzten banku-kontuen zerrenda agertuko da kontu korronteen titularrak diren entitateen urteko kontuen memorian. IBAN kodearen lehenbiziko lau zenbakiak eta azkeneko lauak agertuko dira soilik. Urteko kontu horien auditoretzek egiaztatuko dute alderdi horri buruz memorian jasotako edukiaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratutako informazioaren arteko korrelazioa.

#### Azken xedapena.–Indarra hartzea

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.